

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



Urtarrilak 13, eguna!

Idazki



Arabako bertsolaritzak urtea ez du hasiko urtarrilaren 1, urtarrilaren 13an baizik. Data apuntatu: urtarrilaren 13an, larunbata, Gasteizen egun osoko plana!

Goizean, Amaia zentroan, 2018ko Arabako Bertso Kuadrillarteko Txapelketako aurkezpen publikoa egingo dugu. 14 taldeen parte hartzaileekin argazki kolektibo potente bat egingo dugu, betirako gordeko duguna eta komunikabideetan agertuko dena. Argazkia, noski, Kuadrillartekoaren kamiseta eta guzti!! Talde kide guztientzako kamisetak banatuko ditugu eta liburuxkak eta kartelak... Pose eta itxura lan gogorra egin ondoren hamaiketako ederra egingo dugu. Portalioian catering berezi bat eskatu dugu: langosta, txuletoiak eta hainbat kriantza dastatzeko aukera. Hortzekin etortzen denarentzat dohai-nik!

Ondoren, siesta egiteko aukera, Arabako

Bertsozale Elkarteko zuzendaritza kideek egitasmoak, aurrekontuak, memoriak eta elkarteko penak azaltzen dituzten bitartean. Ohi bezala, Ekaitz Elorriaga Arabako Bertsozale Elkarteko lehendakariak emango dio hasiera batzarrari. Inportantea da siesta ratutxo hau, zurrungen artean entzundakoarekin jakingo duzu nola funtzionatzen duen elkarteak, zeri ematen zaion lehentasuna, zenbat dirurekin egiten den, nortzuk ari diren, zeintzuk diren erronak, zailtasunak... Gainera bazkide bazara bozkatzeko aukera izango duzu. Kontuz galderarekin: Onartzen duzu? Bai, ez, pufff...

Ondoren bazkaria Errexala elkartearen. Hau bai, ordainduz, 15 €. Hamaiketako langosta dohainik zen baina bazkariko patatak ordaindu behar dira, merke, merke.

Eta bukatzeko bertso saioa. Ja! Sorpresa! Tipikoa, sorpresa dela iragartzen da lotuta ez dagoelako. Ba, honetan ez, begira! Lotuta dago eta sorpresa da!

KOPLA

Urtea joan zaigu
#BTN gisara.
Txapelketaren "boom" ta
famarekin hara:
Pipi ere etorri da
bertso eskolara!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



Berriro txapelketa

Txustapena

Urtarrilaren 13an aurkeztuko da Kuadrillartekoa. 2018ko edizioan lehia gordinen arituko dira bat-bateko 14 taldeak, zutik bat bakarrik geratu arte.

2010 eta 2012ko lehia sutsuak sortu-tako basapiztia menderatu, lotu eta gorde zuen Arabako Bertsozale Elkar-teak. Inoiz gehiago ateratzeko asmoarekin iluntasunean usteltzen eta putrefakzioan pasatu ditu azkene-ko 5 urte hauek.

2014 eta 2016ko Kuadrillartekoak hipismo, happy flower, Yupiren mundua eta egin maitasuna eta ez borroka giroan belaunaldi berri bat sortu nahi izan du. Lehiarik gabe, beste mundu bat posible zela sinestara-zi nahi zuen Kuadrillartekoak.

Inork ez dakien arrazoiengatik, inork aitortzen ez duen nahiarengatik eta Inork espero ez zuenean piztia esnatu egin da.

Txapelketak bizirik iraun du, zulo beltzetik atera eta gure artean dago berriro. Inoiz baino gordinago, krudelago, indartuta... Abemariapurisima!!

5.edizioa da 2018ko hau. Bat-bateko

14 talde lehian arituko dira, txapelketa formatuan: 59 lagun bertsotan, 18 lagun epaile lanetan eta 16 lagun gai jartzaile lanetan. Idatzizko 18 talde arituko dira sorta modalitatean. Guztira 320 parte hartzaile funtzio ezberdinetan. Urtarrila-ren 13an aurkeztuko da Gasteizen.

Bat-bateko taldeak saio bat antolatuko du bere etxean, eta beste batean kanta-tuko du etxetik kanpo. Hiru finalurre-koetara 6 talde sailkatuko dira, beste 8ak izarra daitezela.

Finala martxoaren 17an izango da, Gasteizko Landatxo kantxan eta hiru talde arituko dira oholtza gainean, nor baino nor besteak zapaldu arte. Txape-lketa honetan bat geratuko da: hobere-na, indartsuena, gogorrena!!!

Taldeak hasiak dira prestatzen. Gai jartzaile eta epaile berrientzat formakuntza bana antolatu da dagoene-ko.

Joan prestatzen gorrotoa, inbidia, aurpegi serioak, azpijokoak, tranpak, ziriak, esamesak eta irainak.

2018ko Arabako Bertso Kuadrillartekoan txapelketa berriro.

PROSODIAREN ITSASOAN

Manu Bendala

Errimak bilatu, neurriak bete, doinua aukeratu...hamaika mekanismo pizten dira bertsolariaren buruan bertso bat botatzeko unean; baina bertsolaria ez da robota, gizakia baizik, sinplea bezain konplexua, eta sentimenduz beteta. Eta hori da botatzen duena bertso bakoit-zean; barruan daramana. Bertsoan, mezuak gero eta pisu gehiago dauka, baina mezua sinesgarria izateko eta aurrean dagoenari iristeko, mezu hori botatzeko erari erreparatu behar dio bertsolariak.

“...mezu hori botatzeko erari erreparatu behar dio bertsolariak.”

Itsaso horretan, prosodiaren (hizkuntza-ren musika) itsasoan, nabigatzen aritu gara bertso-arraunlari batzuk Arabako Bertso Elkar-teak sortutako kantaera eskolan. Ainhoa Aizpurua itsasontziaren kapitaina izan da, eta berarekin batera zortzikote bat, top arraun! Agian bidaia-ren soinu-banda ez da sirenen kantu afinatu bat izan. Dena den, lortu dugu marea menderatzea.

Lan egin duguna ez da afinazio perfektua izatea. Baina bai prosodiak emandako baliabidea nola kudeatu dezakegun ideia edo sentimendu bat transmititzeko. Kantaera da bertsoari gorputza ematen diona; itsasoa gurutzatzeko gure txalupa. Eta bidaia honetan intonazioa, tempoa, edo etenak gure arraun, branka eta bela bilakatzeko aukera izan dugu. Segi dezagun arraunean!

“...Ainhoa Aizpurua itsasontziaren kapitaina izan da, eta berarekin batera zortzikote bat, top arraun!”



Bertxoko sariketako finala

Bertxoko crews mokey

2017ko azaroaren 30a.

17:00. Ostegun euritsua da eta iluntasunak arratsaldeko bostetan harrapatu gaitu (bueno agian ez, baina dramatismo pixka bat ematen dio, ezta?). Bertxokotarrak Hala Bedi tabernan bildu gara gaiei azken ukitua eta nondik norakoak behin-goan definitzeko. Badakigu zer pentsatuko duzuen: agian berandu ez ote den saioa zehazteko, baina horrelakoa da Bertxoko.

18:06. Gogoratu dugu sariketek sariren bat izan beharko luketela. Latablaren ideologian hain sartuak gaudenetik jada materialismoa ez dugu aintzakotzat hartzen eta horri buelta eman behar zaiola okurritu zaigu.

P.D.: ideologiaren inguruko dudarik baldin badaukazue, gogoratu liburu bat ere idatzi duela gure profetak: Ondo harrapatzen zaituzte? Saioen antolakuntzarako monografikoa. Elkarren baita e-book formatuan ere erabilgarri.

20:03. Murphyren legeari eskapo eginez puntual iritsi dira gure gai jartzaileak.

20:04. Gai jartzaileen presentzia somatuta Xabi, Aitor, Unai eta Asier zurbil jarri eta jateari utzi diote. Lehen aldia dute Bertxoko sariketan eta igartzen zaie. Inozentzia galtzearen doan ume baten aurpegia dute, eta arrazoi osoz, Bertxokotarrak gupida gabeak bait gara.

20:18. Latabla ere nerbiooso, dena aurrera doa, baina desordena da nagusi eta hori gorroto du. Bertxokotarrak ere gorroto gaitu. Baina guk bera ez.

20:31. Saioa hasi da, Latabla albotik haserre, minutu oso bat galdu dugula eta. Hitzegiten saiatu gara baina ez dugu ondo harrapatu.

20:54. Agurrak bota dituzte laurak. Bost minutuko denbora maximoa jarri arren sudur puntan jarri zaiena egin dute. Asier Rubiok 30 segundu, Xabi eta Aitorrek 4' terdi eta Unai ez dakigu baina agur osoan ez du arnasik hartu eta inpresionatu gaitu. Hori segidilla.

21:06. Zortziko handiarekin hasi dira serio. Bertxokotarrak gorroto dugu seriotasuna eta baten bat kaña eskatzen joan da.

21:29. Bertxokotarrak lurretik barrezka gabiltza. Nondik atera dira Unai eta Aitor? Itzelak!

21:46. MC Serapioren raparen ordua. Gu emozionatuta, publikoa esperoan, bertsolariak urduri eta Serapio suposatzen dugu harro. Xabik ederki egin du. Errima arraroak tokatu zaizkio baina aurre egin dio guztiari.

21:52. Aitor Rapeatzen. Txapela jantzita benetako raperoa dirudi. Agro-rapa askotan landu duenez publikoa eta gu disfrutatzen.

21:58. Unai hegan. Segidilla arnasik hartu gabe egin bazuen, rapa gehiago. Itzela.

22:06. Asier ilun. Txapela jarrita apenas ikusten zaio aurpegia. Serio eta zurrun. Rapa asko ez zaio gustatzen baina ondo atera du. Bukatzean erreberentzia (hori rapean bai?)

22:XX. Orduak aurrera eta Latabla nerbiooso. Asko dabil irauten.

22:XX. Bueno buruz burukoa hastera doa eta lasaitzen dago. Bertxokotarrak beti bezala alsai. Epailak are gehiago. Berediktua hau: Unai eta Aitor pasa dira.

23:XX. Hasi da buruz burukoa. Bertsolariak kartaka jolasten eta puzzleak egiten dabilta. Publikoko giputxiak nerbiooso. Hau al da araban bertsoa? Zer gertatuko da?

23:XX. Bertsoari buruz filosofatzen umeen mahaiko bertsolariak. Puzzleak eta ahaztu eta serio ekin diote.

23:XX. Epailak lasai eta txapelduna nor izan den esan dute: Aitor Ugarte. Sari banaketa dator. Bertxokotarrak irrikaz begira gaude, gure opari itzelak datoz eta.

XX:XX. Hau ez da serioa. Denek daukate txapel bat buruan eta txapeldunak gabonetako zuhaitz bat ematen du. Denek barrez. Irabazlea pozik eta galtzaileak gehiago. Bukatu da sariketa.

Hau dramatizazioa izan dela uste baduzue ikus argazkia (Bakaillok esango luken bezala "oleo sobre lienzo").



AGENDA!

Ez genuenez agenda propioa, Arloteari berea ostu diogu eta hau jartzen du "Abenduaren 17a" orrialdean:

erkin adj. Ahula. Ik. kaden.

Alotea

7:00 gaurko lehen pentsamenduak Oiongo gudariak eta batez ere Maulen busa 5:45ean hartu duten egiazko xiberutar horientzat.

8:00, bus barruan gaude, ufa! Zorionez gaupaseroek ez gaituzte ikusi. Gure kezka nagusia da gure ardo botilak nola sartu. A! Ez naiz ni bakarrik: gehienok ez dugu ulertzen zer egin behar dugun BECen 9etan.

9:30, gure susmorik txarrenak egiazta-tu dira, gure lekuan eserita gaude. Ezin omen da ez jan, ez edan, ez erre. Hemendik 4 urtera pultsera telematikoak baietz. (ardoa gurekin dugu, bestalde, JA).

13:07, kartzelan zain gaude, ofizio batzuk ederrak, beste batzuk pixka bat erkin. Puntu erantzunetan ez bereziki distiratsu edo borobil. Ardoa ederra dago eta zizka-mizkak askotarikoa eta ederrak. Arantxa Sobrinok dio ea kalbo hori non dagoen (ez da zenbait bertsolariri buruz ari).

13:21, Igorrek emanez esanez potoa e(r)ki(di)n du jj

14:37, goizekoaz: faborito batzuk (Arzallus, Sustrai eta Elortza) ez ditut

ikusten txapela jantzeko oraingoz. Maialen bai, 10eko txikian baxuxeago, gainerakoan distiraz, hain faborittoa ez zen Sarriegi oso ondo, hain faborittoa ez zen Gaztelumendi ez hainbeste, gutxien faborito zen Agirre ondo, Mendiluze Mendiluze dabil. Bazkaltzeraaaaaa! Yeah! Ardotik jarraitzen dugu.

18:32 Nire predikzioa Maialen eta Mendiluze edo Sustrai

19:25 Ekaitzek ez digu ezer txibatu nahi izan watxapetik (zertarako nahi dugu orduan ordezkari arabar bat epai-mahaian?). Zorionak Mendiluze, nire ustez txapela Maialanek jantziko du baina... Ondoren animatu da eta txibatu digu behintzat Sustrai puntu erdira geratu dela buruz burukotik. Aintzane Irazusta sartu da kalboaren watxap-saltsan.

19:33 Maialen txapeldun! Ondo merezita, gaur bertsoari mami gehien atera diona bera izan da.

20:55 Geratuta nago Aitzol Barandiaran eta Uxue Alberdirekin 6. pabiloiaren aurrean, 10 minutu daramat jarrera honetan, ipurdia hozten ari zait.

21:00 Murua dator nigahhhhhrrrggg!

Ipurdi hori ez da erkina

ZERNAHI

DENON ARTEAN ALTXATU DUGU EUSKARAREN LURRALDEA



Editoriala

Baigorri hasi zena Barakaldon bukatu da, baina bidean aztarna goxo bat utzi du.

Euskararen lurralde oso bat aipatu zuen Iñaki Muruak aurkezpen egunean, eta txapelketaren irudiak ere hori iradoki digu.

Gero etorri da borondatezko lana eta herriz herriko bertso eskolen inplikazioa, baina Arabako Bertsozale Elkarteak detektibe pribatu (oso garesti) bat kontratatu du hori hala den ikusteko eta... hara ze argazki bidali dgun!

Dena da muntaia bat! Lurraldea altxatzen ari direlakoan borondatezko langile batzuk ageri dira, baina figatu ondo haien besoetan, ez dabilta indarrrik egiten, Bastidako ardoz beteriko ardo kopa bat eusten adina indar egiten ari dira, hau bai antzerkia...

